BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4331

EBAZPENA, 2014ko urriaren 7koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen dira.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko ekainaren 11ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Arlo edo lurralde eremuak kontuan hartuz ebazpen honen I. eranskinean zehaztzen diren laguntzak ematea ikasleen guraso elkarteen federazio eta konfederazioei 2014. urtean egingo diren ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Diru-laguntzen lehen ordainketa elkarte bakoitzari dagokion diru-laguntzaren % 75ekoa izango da. Ordainketa aldez aurretik egingo da eta, betiere, diru-laguntza onartu ondoren deialdiaren aginduko 15. c) artikuluan jasotzen den bezala. Gainontzeko % 25, «Egindako gastuaren justifikazioa» delako inprimaki normalizatua, behar bezala beteta, eta ordura arte izandako gastuen faktura eta ordainagiriak aurkezten direnean ordainduko da. 2014ko abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko da dokumentazio hori.

3. artikulua.– Ebazpen honetako II. eranskinean zehaztutako kolektiboek egindako laguntza-eskabideei ezezkoa ematea, eranskin horretan zehaztutako kausak direla-eta.

4. artikulua.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 7a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.

I. ERANSKINA

Konfederazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	Ehige	55.553
Bizkaia	Ufepa	14.447

Lurralde historikoetako federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira
Araba	Denon eskola	47.574
Gipuzkoa	Baikara	56.887
Bizkaia	Fapv-Bige	65.539

Beste federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira
Araba	Fapacne	11.344
Bizkaia	Fecapp	32.894
Bizkaia	Bigef	11.924
Bizkaia	Gidari	4.279
Bizkaia	Elkargarri	2.780
Gipuzkoa	Feguiapa	15.625
Gipuzkoa	Gigef	17.527
Gipuzkoa	Federacion eskola txikiak	7.183
Bizkaia	Ikasge	6.444

II ERANSKINA

Lurraldea	Erakundearen izena	Arrazoia
Bizkaia	Fapae - Eigef	7.1 art., 7.2 art. eta 7.3 art. ez ditu betetzen
Gipuzkoa	Haztegi ikastola Koop. Elk	Ez du. 4. artikulua betetzen
Bizkaia	Gurutzeko gurasoak Ige	Ez du 4. artikulua betetzen
Bizkaia	Asti-Leku S. Coop.	Ez du 4. artikulua betetzen